




HAURRAK ETA NERABEAK BABESTEA

Kirol entitateetarako protokoloa

Entitatearen izena	
Data	
Entitateko pertsona arduradunaren sinadura	

SARRERA: Zergatik protokolo hau?	3
PROTOKOLOA: entitatearen izena eta deskribapena	3
ENTITATEAREN DATUAK	4
KONPROMISOAK ETA PRINTZPIOAK	5
EZAGUTU BEHARREKO KONTZEPTUAK	6
• Indarkeria	
• Ingurune seguru eta babeslea	
• Pertsona adingabeak eta eskubideen subjektuak	
PERTSONA ADINGABEAK BABESTEKO NAZIOARTEKO ERREFERENTZIAZKO EKINTZAK	9
ONGIZATEAREN ARDURADUNA (OA)	11
• Ongizatearen arduradunaren funtzioak	
• OAren prebentzio, detekzio goiztiar eta esku hartzeko eginkizunak	
– Kirolari adingabeekin	
– Ama, aita eta tutore legalekin	
– Entrenatzaileekin	
– Epaileekin	
– Osasun-laguntzako langileekin	
– Entitateko zuzendaritzarekin	
INFORMAZIO ETA BALIABIDE GEHIAGO	29

SARRERA:

Zergatik protokolo hau?

Kirol entitateetarako Haurrak eta nerabeak babesteko Protokoloa indarkeria egoeretan eta adingabe eta gazteekin eguneroko lanean gatazkak sortzen direnean entitate horietako pertsonak zer egin behar duten azaltzen duen dokumentua da.



PROTOKOLOA:

Entitatearen izena eta deskribapena

Protokoloaren titulua	entitatearen Haurrak eta nerabeak babesteko Protokoloa
Onarpen data	
Onarpen organoa (zuzendaritza batzordea, patronatua...)	
Hurrengo berrikuspenaren data (urtero edo bi urterik behin)	
Helburuak	
Ongizatearen arduraduna (OA)	Izena eta abizenak: Izendatu zen data: Akta zenbakia:
Protokolo hau aplikatuko zaizen talde edo kolektiboak (barne eta kanpokoak)	
Lotutako beste dokumentu batzuk (entitatearen kode etikoa, haurren parte hartzerako estandarrak...)	
Interneteko lotura dokumentu honetara eta gainerako dokumentuetara	



ENTITATEAREN DATUAK

Entitatearen izena	
Misioa	
Ikuspegia	
Balioak	



KONPROMISOAK ETA PRINTZPIOAK

Adingabeak babestea kirol entitate guztien betebeharra da, adingabeen ongizatea bermatzeko eta kirola egiteko espazio segurua eskaintzeko.

..... entitatearentzat, ezinbestekoa da betebeharrak hori egunerokotasunean betetzea eta ezagutzera ematea.

Horregatik, babesarekin dugun konpromisoa argia da, eta protokolo honetan zehaztuko da. Gure entitatean haurrak eta nerabeak babesteari lotutako alderdi garrantzitsu guztiak protokolo honetan jasoko dira.


Horrez gain, konpromisoa hartzen dugu, kirola egitearekin lotutako pertsona guztiek protokolo hau ezagutu, hedatu eta errespetatu dezaten.

Egunerokoan sor daitezkeen indarkeria eta gatazka egoeretan honako hau bermatzeko konpromisoa hartzen dugu:

- Gure jardueretan parte hartzen duten haur eta nerabe guztien ongizatea.
- Garapen fisiko, emozional eta psikologikorako espazio osasungarri eta segurua izatea.
- Profesional, boluntario, familia eta adingabeen tratua ona, harreman guztietarako ezinbesteko tresna modura.

Adingabeak babesteko protokolo honen printzipioak honako hauek dira:

- Haurren eta nerabeen ongizatea.
- Haurren eta nerabeen eskubideak errespetatzea.
- Haur eta nerabeen interesak defendatzea gainerako pertsonen interesen gainetik.
- Haurren eta nerabeen parte hartzea.
- Legeak betetzea.



EZAGUTU BEHARREKO KONTZEPTUAK

..... entitatearentzat garrantzitsua da kirol jardunaren barruan dauden langile teknikariek, boluntarioek, adingabeek, familiek eta gainerakoek jakitea indarkeriaz, adingabeez edota tratu onez ari garenean oinarritzat hartzen ditugun kontzeptuak zein diren.



INDARKERIA

Adingabeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat da. Berdintasunik gabeko harremanetan botere abusu baten emaitza dira, eta barne hartzen ditu nahita eragindako min fisikoen formarik esplizituenak zein nahigabe eragindako min ez fisikoaren formak¹.

Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Babesteko Lege Organikoak (LOPIVI) **adingabeen aurkako indarkeria** forma guztietan eta aplikatzeko modu guztietan definitu zuen, honako hau eragiten duen ekintza, omisio edo zabarkeria tratu oro modura:

- Adingabeei haien eskubide eta ongizatea kentzea.
- Garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzea edo arriskuan jartzea.

LOPIVIren arabera, indarkeria honako hau da:

- tratu txar fisiko, psikologiko edo emozionala
- zigor fisikoak, umiliagarriak edo iraingarriak
- axolagabetasuna edo tratu arduragabea
- mehatxuak, irainak eta kalumniak
- informazioaren eta komunikazioaren teknologietatik eratorritakoa, bereziki, indarkeria digitala
- esplotazioa, sexu indarkeria, galbideratzea, haur pornografia, prostituzioa
- eskola jazarpena, sexu jazarpena, ziberjazarpena
- genero indarkeria
- genitalen mutilazioa
- gizakien salerosketa.

1 Haur eta Nerabeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Euskal Estrategiaren arabera (15. orrialdea).

Indarkeria motak kirolean		Kiroleko indarkeriaren adibidea
Norberak eragindako indarkeria		Bere buruaz beste egitea Bere buruaz beste egiteko ideiak edo saiakera Autolesioak Elikadura nahasmenduak Norbere buruari ezarritako gehiegizko entrenamendua
Pertsona arteko indarkeria (CASES²)	Zabarkeria 	Babes egokirik eza Osasun zaintzarik eza Ikuskaritzarik eza Ekipamendu egokirik eza Ikasketak uztera behartzea Segurtasunik gabeko egoeretan entrenatu eta lehiatzera behartzea
	Indarkeria psikologikoa 	Umiliazioak Itxurari buruzko kritikak Pertsona alde batera uztea edo baztertzea Ahalegina ez txalotzea Mehatxuak, ahozko abusuak Errendimendu altuegia izatera behartzea
	Indarkeria fisikoa 	Ariketak egitera behartzea, zigor modura Iniziazio erritu behartuak Elikadura osagarriak hartzea behartzea Entrenatze eta lehiatze behartua pertsona lesionatuta badago edo intentsitate kaltegarrian Eraso fisikoa
	Kontakturik gabeko sexu indarkeria 	Iruzkin sexualak Begirada sexualak Irudi sexualak derrigorrez ikustea Irudi sexualak modu behartuan sortzea Irudi sexualak partekatzea Arropa nahitaez kenaraztea Exhibizionismoa aurrez aurre edo online Kontakturik gabeko iniziazio erritu edo jolas sexualak
	Kontaktudun sexu indarkeria 	Musu behartua Sexu ukitu behartua Genitalen kontaktu behartua Aho sexu behartua Penetrazio behartua Iniziazio erritu sexualak kontaktu behartu bidez
	Testuinguruko indarkeria (normatiboa - egiturazkoa)	
	Aurrekontua modu bereizian banatzea (generoa, adina dela medio...)	
	Haurrak babesteko araudirik eza (modalitate arriskutsuak, egokitu gabeak...)	
	Prestakuntza eta sentsibilizazio kanpainarik eza	
	Haurrak babesteko prestakuntzarik eza	
	Instalazio desagokiak	
	Hasiberriari burla egitearen kultura	
	Adingabeen profesionalizazioa (ezkutuko kontratuak)	
	Haurren lana	
	Adingabeen salerosketa	



INGURUNE SEGURU ETA BABESLEA

Ingurune seguru eta babeslea honako hau gertatzen den espazioa da:

- Tratu psikologiko eta emozional ona dago.
- EZ dago indarkeria, abusu edo esplotazio formarik.
- Pertsona helduek adingabeen interesak defendatzen dituzte, gainerako pertsonen interesen gainetik.
- Giza eskubideak errespetatzen dira³.

Beharrezko baldintza da pertsona adingabe orok erabat garatzeko eta babestua izateko duen eskubidea bermatzeko.



PERTSONA ADINGABEAK ETA ESKUBIDEEN SUBJEKTUAK

Legeen arabera, adingabeak dira:

- 18 urtetik beherako pertsonak, Espainiako Konstituzioaren 12. artikuluaaren arabera.
- 0 eta 18 urte arteko gizaki guztiak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 1. artikuluaaren arabera.

Adingabeek, izate hutsagatik:

- **Babes eta zaintza bereziak jaso behar dituzte**, edozein garapen garaietan egonda ere.
- **Eskubideen subjektuak** dira, termino juridikoetan zein sozialetan, oro har bizitza publikoan eta, bereziki, kirol entitateetan parte hartzeko.
- Beste pertsonen interesen gainetik **adingabeen interesek lehentasuna** izango dute.

3 Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen 1989ko Konbentzioa.



PERTSONA ADINGABEAK BABESTEKO NAZIOARTEKO ERREFERENTZIAZKO EKINTZAK

..... entitatean, kirola egiteko ingurune seguru eta babeslea izateko adingabeak babesteko nazioarteko ekintzak hartzen ditugu erreferentzia gisa.

Hona hemen ekintza horiek:

1. Araudi propioa garatzea, babeserako politika modura.

Araudi horren bitartez, adingabeak edozein minetik babesteko gure entitateak duen konpromisoa ezagutzera ematen dugu.

Horrez gain, prozedurak garatzeko marko bat ere ematen du.

2. Erantzuteko prozedura bat garatzea, zalantza edo detekzio kasuan.

Prozedura gida bat izango da araudi propioa urratsez urrats ezartzeko eta egoera bakoitzean zer egin jakiteko.

Rolak, erantzukizunak eta komunikazio ildoak definitzeko ere balioko du. Izan ere, kexa edo ezinegon oro lantzen laguntzeko eta indarkeriaren biktimak babesteko sistema eraginkorrak eduki behar dira.

Sistema horiek dagoeneko existitzen diren sistemak hartu behar dituzte oinarritzat, eta sistema eta legedi nazionaletan duten betebeharra ulertu.

3. Aholkularitza eta babesa.

Gure entitateak funtsezko informazioa eta beharrezko babesa ematen die adingabea babesteko arduradunei. Adingabe eta nerabeei laguntza eta babesa aurkitzeko lekuei buruzko informazioa ere ematen die.

4. Adingabeentzako arriskua murriztea.

Adingabeentzako arriskua ebaluatu eta txikiagotzeko neurriak garatzea.

5. Jokabide gidak sortzea.

Gida horietan jokabide eredu onargarria zer den deskribatuko da, eta jardun onak sustatuko dira.

6. Erakarri, prestatu eta komunikatu.

Gure entitateak pertsona egokiak erakarri eta prestatuko ditu, behar diren trebetasunak garatu eta mantentzeko. Horrez gain, babesari dagokionez une oro komunikatuko da.

7. Beste erakunde batzuekin kolaboratzea.

Beste entitate atxiki batzuek adingabeak zaintzeko neurriak hartu eta aplikatzea sustatuko du gure entitateak.

8. Monitorizatzea eta ebaluatzea.

Gure entitateak babes neurri eta ekintza guztiak eraginkortasunez betetzen direla ziurtatuko du, entitate barruko pertsona talde guztiekin batera (gurasoak, langile teknikariak, kirolariak...).

9. Prestakuntza plana.

Gure entitateak prestakuntza plan bat diseinatu eta aplikatuko du urtero, kirol jardunetan adingabeekin parte hartzen duten pertsona guztientzat. Pertsona horiek hasierako prestakuntza eta prestakuntza jarraitua jasoko dute.

Ongizate arduradunak berriazko prestakuntza zabalagoa jasoko du.

10. Lehenengo eginkizunak.

Prebentzioa, babeseta eta espazio seguruak sortzea hasierako prozesu eta urteetako prozesu jarraitu modura ulertzen du gure entitateak.


Horregatik, behar diren urratsak emateko konpromisoa hartzen du, LOPIVI legea betetzeko eta Haur eta Nerabeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Euskal Estrategiak proposatutakora egokitzeke.

Horregatik, eginkizun hauek egingo dira:

- **Ongizatearen arduraduna** izango den pertsona hautatzea.
 - Adingabeen babesari dagokionez **prestakuntza jarraitua** ematea.
 - **Gure entitatearen autodiagnostiko** bat egitea, kirolari dagokionez LOPIVIk ezarritakoa betetzen ote dugun jakiteko. Gure kirol esparrura egokitutako tresna erabiliko dugu⁴.
 - **Kirol jardunari buruzko arriskuen analisia** egitea: kirol jardunaren instalazioak eta ingurua, materiala, entrenatzaileen prestakuntza... Horrez gain, adingabeen zaurgarritasun egoerari buruzko analisia ere egingo da.
 - **Natura sexualeko deliturik gabeko agiri** eguneratua eskatzea adingabeekin harreman zuzena daukaten pertsona guztiei.
 - Urtero **sentsibilizazio, komunikazio eta gaikuntza plana** diseinatu eta martxan jartzea, honako hauekin:
 - kirolari adingabeak
 - entrenatzaileak
 - senideak edo lege arduradunak
 - osasun-laguntzako langileak: medikua, fisioterapeuta, psikologoa...
 - entitatearen zuzendaritza.
 - Entitateko eragileekin aldizkako bilerak egitea. **Galdera kritikoaren zerrenda** erabiliko da gida modura, kontzientzia hartzeko. Galdera horiek tauletan jaso dira, 13. orritik aurrera.
 - Gure entitateko adingabeen babesari buruzko **informazio garrantzitsu guztia erregistratzea**. Adibidez, entitatea utzi duten adingabeak, entitatea uzteko arrazoiak, entitateko eragileren baten kexak adingabeen ongizateari dagokionez, lesioen erregistroa...
- Erabilgarria izan daiteke **entitateei plataforma bat ematea**, informazio bilketa zentralizatzeko eta entitate guztiei urteko memoria bat eskatzea, plataformatik modu automatikoan egin ahal izango dena. Hala, Euskal Autonomia Erkidego osoaren jarraipena eta ebaluazioa egin ahalko da.
- **Kolaborazio sareak** sortzea, sustatzea eta adingabeak babesteko eta kiroleko beste entitate batzuekin koordinatzea.
 - **Esperientziak partekatzeko topaketetan parte hartzea** adingabeak babesteko eta kiroleko beste entitate batzuekin.

Eginkizun horiek guztiak urtero egingo dira, plangintza, garapena, egiaztatzea eta doikuntza sistemarekin (PDCA). Baina eginkizun hauek garrantzitsuak dira batez ere hasieran, protokolo hau aplikatzen hasten denean.

4 https://www.sportanddev.org/sites/default/files/media/herramienta_internacional_de_auto_auditoria_salvaguuardias.docx
<https://thecpsu.org.uk/self-assessment-tool/>.



ONGIZATEAREN ARDURADUNA (OA)

Gure entitatean Ongizatearen arduraduna (OA) ingurune seguru eta babeslea dagoela ziurtatzen duen pertsona da. Horrez gain, protokolo honen prozesua eta abiatzea dinamizatu eta gidatzen duen pertsona da.

ONGIZATEAREN ARDURADUNAREN FUNTZIOAK

- LOPIViren 48. artikulua ezarritako eta kirolaren eta aisialdiaren esparruan Administrazio Publikoek dauzkaten **jardun protokoloak aplikatzea**.
- **Monitorizazio sistema ezartzea**, adingabeak babesteko protokolo horiek betetzen direla bermatzeko.
- **Erreferentziazko eta konfiantzazko pertsona izatea** adingabeentzat, ezinegonak haiei kontatzeko.
- **Protokoloak hedatu eta betearazteaz arduratzea**, baita behar diren komunikazioak ere, adingaberen batean indarkeria egoeraren bat antzematen denean.
- **Behar diren neurriak hartzea** kirola egitea, eta aisialdiaz eta kulturaz gozatzea **espazio irekia eta** adina, arraza, desgaitasun, sexu orientazio, sexu identitate edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialen ondoriozko **diskriminaziorik gabea** izan dadin.
- **Irainak eta adierazpen umiliagarri eta diskriminatzaileen erabilera errefusatzeko** adingabeekin, familiarekin eta profesionalekin lantzea.
- **Adingabeen parte hartze aktiboa sustatzea** prestakuntzaren eta garapen integralaren alderdi guztietan.
- Kirol entitateen eta gurasoen, tutore legalen eta bestelakoen arteko **harremanak eta komunikazioa sustatzea eta indartzea**.
- **Detekzioa goiztiarra izateko lan egitea**, eta begirada kritikoa sustatzea adingabeen **aurkako indarkeria egoera potentzialen aurrean**. Batez ere, adingabeak biktimizatzeko arriskua dagoen egoerei dagokienez kirol sistemako eragile guztiek kontzientzia eta sentsibiltate berezia izateko helburuarekin.

ONGIZATEAREN ARDURADUNAREN (OA) PREBENTZIO, DETEKZIO GOIZTIAR ETA ESKU HARTZEKO EGINKIZUNAK

Horiexek dira OAren eginkizunak kirol sistemako eragile bakoitzarekin adingabeen aurkako indarkeria egoera potentzialak saihestu, modu goiztiarrean antzeman eta horietan esku hartzeko.



Kirolari adingabeekin

Adingabeek ez daukate “azken” erantzukizuna prebentzio, detekzio edo esku hartze eginkizunetan, baina parte hartu behar dute, eta erantzukidetasuna dutela jakin behar dute. Horrenbestez, eginkizun horiek adingabeekin batera lortu beharreko helburuak izango dira.

KIVA metodoa hartuko da erreferentzia modura; metodo horretan ikaslearen edo laguntzailearen figurak garrantzi handia du. Kirol jardunaren kasuan, OAren laguntzaile adingabea, kapitainak edo adingabeengandik gertuen dagoen pertsona izan daitezke.



Indarkeria motak kirolean	Prebentzioa	Detekzio goiztiarra Galdera kritikoen zerrenda	Esku hartzea
Norberak eragindako indarkeria	Norbera eta kideak zaintzea sustatzea.	- Ongi pasatzen duzu? OA: Ongi pasatzen dute? - Ba al da zoriontsu ikusten ez duzun taldekideren bat?	- Eman konfiantzazko espazioa. - Jakin behar dute entrenatzailearekin, OAekin edo beste edozein heldurekin hitz egiteko aukera daukatela. - Jarri harremanetan Eusko Jaurlaritzako Zure Taldekoak Gara zerbitzuarekin (ikusi 29. orria).
Pertsona arteko indarkeria	- Taldeko eta beste taldeetako gainerako pertsonetikiko errespetua lantzea. - Autobabesa eta pertsona guztien arteko tratua ona lantzea.	- Zure kideak errespetuz tratatzen al dituzu? OA: Errespetuz tratatzen dute elkar? - Taldekideek errespetuz tratatzen zaituzte? Iraindu egiten zaituzte? Gaizki sentiarazten zaituzte? OA: Taldekideek errespetuz tratatzen dute elkar? Iraindu egiten dute elkar? - Entrenatzaileak errespetuz tratatzen zaitu? Iraindu egiten zaitu? Gaizki sentiarazten zaitu? OA: Entrenatzaileak errespetuz tratatzen ditu? Iraindu egiten ditu?	- Jakin behar dute edozein gertaera entrenatzaileari, OAri edo beste edozein helduri jakinarazi ahal diotela. - Jarri harremanetan Eusko Jaurlaritzako Zure Taldekoak Gara zerbitzuarekin (ikusi 29. orria).
Testuinguruko indarkeria (normatiboa-egiturazkoa)	- Adingabeek elkartean erabakietan parte hartzea sustatzea. - Bidezko tratua sustatzea.	- Zure iritzia kontuan hartzen dute zure taldearen, klubaren edo federazioaren erabakietan? OA: Kirolari adingabeen iritzia kontuan hartzen dira zure taldearen, klubaren edo federazioaren erabakietan? - Zure taldean, klubean edo federazioan diskriminatua sentitzen zara? OA: Zure taldean, klubean edo federazioan norbait diskriminatua sentitzen da?	- Jakin behar dute edozein diskriminazio egoera entrenatzaileari, OAri edo beste edozein helduri jakinarazi ahal diotela. - Jarri harremanetan Eusko Jaurlaritzako Zure Taldekoak Gara zerbitzuarekin (ikusi 29. orria)



Ama, aita eta tutore legalekin

Haien parte hartzea ezinbestekoa izango da protokolo hau betetzeko eta seme-alaben kirol jarduera ongizaterako osasungarria izan dadin.

Horrez gain, modu zuzenean hartzen dute parte protokoloan, seme-alaben interesa errespetatu eta zaindu behar dutelako, haien izaeraren arabera, baita haien eskubideak, integritate fisikoa eta mentala ere.



Indarkeria motak kirolean	Prebentzioa	Detekzio goiztiarra Galdera kritikoaren zerrenda	Esku hartzea
Norberak eragindako indarkeria	• Adingabeak autozaintzaren inguruan eta indarkeria mota ugari modu goiztiarrean detektatzearren inguruan sensibilizatzea. Adibidez, bere buruaz beste egitea, osasun mentala, elikadura nahasmenduak...	• Zure seme-alabek ongi pasatzen dute kirola egitean? • Umore edo jokabide aldaketaren bat antzeman al duzu? • Zure seme-alabek gorputz lesio deigarriak dituztela ikusi al duzu? • Elikadura osasungarriari buruz hitz egiten duzue? • Elikaduraren inguruan modu deigarrian hitz egiten du? • Entrenatzaileekin edo taldekideekin komunikatzeko zailtasunak ditu? • Tarteka erreparatuak jartzen ditu entrenatzera joateko?	• Jakin behar dute entrenatzailearekin edo OArekin hitz egiteko aukera daukatela.
Pertsona arteko indarkeria	• Kirol entitatean adingabearen ongizate eta tratatu onean zentratutako entrenamendu estilo eta jokabide kodearen inguruan sensibilizatzea eta horren berri ematea.	• Lehiaketa bat seme-alabekin komentatzen duzunean, soilik emaitzaren inguruan galdetzen diozu? Edo egunari eta gozatzeari buruz ere? • Zure seme-alabek errespetuz hitz egiten dute klubeko edo taldeko kideen inguruan? • Zure seme-alabek komentatzen dute kideek errespetuz tratatzen dituztela? Iraindu egiten dituztela? Gaizki sentiarazten dietela? • Zure seme-alabek komentatzen dute entrenatzaileak errespetuz tratatzen dituela? Iraindu egiten dituela? Gaizki sentiarazten diela? • Zure seme edo alabaren partidak, lehiaketak, entrenamenduak ikustera zoazenean, animatu egiten duzu, edo kritikaren bat egiten duzu entrenatzaileei, jokalariei eta epaileei dagokienez?	• Jakin behar dute edozein gertaera entrenatzaileari, OAri edo <i>Zure Taldekoak Gara</i> zerbitzuari jakinarazi ahal diotela.
Testuinguruko indarkeria (normatiboa-egiturazkoa)	• Adingabeek elkartearen erabakietan parte hartzea sustatzea. • Bidezko tratua sustatzea.	• Zure seme-alabek taldearen, klubaren edo federazioaren erabakiak hartzen parte hartzen dute? • Igartzen duzu zure semeak edo alabak taldean, klubean edo federazioan diskriminatuta daudela? Adibidez, berdintasunik gabeko tratua, instalazioetara sarbide ez parekoa...	• Jakin behar dute edozein diskriminazio egoera entrenatzaileari, OAri edo <i>Zure Taldekoak Gara</i> zerbitzuari jakinarazi ahal diotela.



Entrenatzaileekin

Haur eta nerabeen garapen integralean pertsona erabakigarriak dira kirolean. Horregatik, pertsona adingabeen ongizate integralean duten erantzukizunaren kontzientzia hartu behar dute, eta autokritikoak izan behar dute; gainera, dagokien hezkuntza rola garatzeko tresnak izan behar dituzte, zalantzan jartzen direla sentitu gabe. Gainera, gogoan hartu behar da askotan entrenatzaileak ere adingabeak direla.

Kirol entitate orok entrenatzaileak eta adingabeekin harreman zuzena daukaten langileak hautatu, kontratatu eta gaitzeko politika argia izan behar du.

Bereziki errendimendu altuko etapetako entrenatzaileei dagokienez. Etapa horietan, entrenamenduei, espektatiba profesionalei, emaitzei, bidaiei edota egonaldiei buruzko jarraibideak bildu beharko dira protokoloan, besteak beste. Gainera, hausnarketa egin beharko da alderdi horietako bakoitzaren berariazko funtzionamendu protokoloak ezartzeko aukeraren inguruan; hala, kirolari adingabeei kalte egin ahal dieten jokabideak existitzeko arriskua murriztu ahalko da.



Indarkeria motak kirolean	Prebentzioa	Detekzio goiztiarra Galdera kritikoaren zerrenda	Esku hartzea
Norberak eragindako indarkeria	Elikadura nahasmenduen eta bere buruaz beste egitearen detekzio goiztiarra eta adingabeen autozaintza sustatzeko oinarritzko prestakuntza.	- Entrenatzen dituzun kirolariek ongi pasatzen dute? Galdetu diezu? - Kirolariren batek gorputz lesio deigarriak dituela ikusi al duzu? - Zure ustez, kirolariren bat bereziki triste dago, edo aldartea aldatu egin zaio? Zer gertatzen zaion galdetu diozu? - Badakizu zer egin behar duzun hori gertatzen denean? Badakizu nori eta nola jakinarazi behar diozun? - Elikadura osasungarriari buruz hitz egiten duzue? - Elikaduraren inguruan modu deigarrian hitz egiten dute?	Zantzu edo susmoren bat badago jakinarazi OARI edo <i>Zure Taldekoak Gara</i> zerbitzuari.
Testuinguruko indarkeria (normatiboa-egiturazkoa)	- Kirolari eta botere sistemei buruzko prestakuntza. - Kudeaketa gardena baliabideak banatzean. - Prestakuntza kirol testuinguru seguruetako material, instalazio eta testuinguruei dagokienez (kirol modalitatearen istripu tasa).	- Zure ustez, entrenatzen dituzun adingabeak diskriminatu egiten dituzte, klub edo federazio bereko beste batzuekin alderatuta? - Araudia entrenatzen dituzun adingabeei egokituta ez dagoela iruditzen al zaizu? - Zure ustez, lehiaketak antolatzeko moduak zuk entrenatzen dituzun adingabeak diskriminatzen ditu? - Entrenamendu, lehiaketa eta partiden aurretik erabiliko den materiala eta instalazioak ikuskatzen al dituzu?	- Larriak edo errepikakorrek ez badira, bitartekaritza lana egin jasotako prestakuntzaren arabera. - Zantzu edo susmoren bat badago jakinarazi OARI edo <i>Zure Taldekoak Gara</i> zerbitzuari.

Pertsona arteko indarkeria	Entrenatzaile- engandik kirolariengana	• Natura sexualeko deliturik gabeko ziurtagiria. • Adingabearen ongizate eta tratu onean zentratutako entrenamendu estilo eta jokabide kodearen inguruko prestakuntza.	• Zure taldearekin kirola egiten duen adingabe bakoitzaren ezaugarriak eta berariazko beharrianak aintzat hartzen dituzu haiekin tratatzean? Adibidez, entrenamenduen diseinua, lehiaketetan parte hartzea... • Zure ustez, entrenatzen dituzun adingabeen osasuna arriskuan jarri al duzu entrenamendu, lehiaketa edo partidaren batean? Adingabe lesionaturen bat entrenatu edo jolastera behartu al duzu? • Beroketetan lesioak saihesteko ariketak egiten al dituzue? • Ba al dakizu zein den entrenatzen dituzun adingabeen eskola eta familia egoera? • Entrenatzen duzun adingaberen bat umiliatu al duzu, edo barregarri utzi? • Oihu egiten duzu, edo adingabeengana estilo erasokorrarekin zuzentzen al zara, esaterako irain edo mehatxuekin? • Zuen taldean hasiberriari burla edo iniziazio errituren bat egiten duzue, edo onartzen duzue? • Jokalariren bat deialdian sartu gabe zigortu al duzu? • Zure jokalariei xantaia egin al diezu, esanez ez direla deialdian sartuko, inplikazio edo errendimendu baxua izateagatik ez dutela berriz jokatu...? • Aldageletara sartzean atea jotzen duzu eta sartzeko baimena jaso arte itxaroten duzu? • Zure ustez, kontaktu fisikoa deserosoa izan daiteke entrenatzen dituzun adingabeentzat? • Karga sexuala daukaten txisteak edo iruzkinak egiten dituzu, edo – ismoetan oinarritutakoak (sexismoa, arrazismoa...)? • Adingabeen artean errespetuzko giro ona sustatzen duzula uste duzu? Adibidez, elkarri eraso ez egitea, baztertuta ez uztea... • Aldagela adingabe guztientzat espazio segurua izatea ziurtatzen duzu?	• Zantzu edo susmoren bat badago jakinarazi OAri edo Zure Taldekoak Gara zerbitzuari.
--	--	---	---	---

Pertsona arteko indarkeria	Familia ingurua	• Bilerak egitea familiekin edo tutore legalekin.	• Adingabeen senideak edo tutore legalak ezagutzen al dituzu? • Zure ustez, ba al dago familia inguruan modu egokian zainduta ez dagoen adingaberen bat? Adibidez, higieena, elikadura, kirol errendimendu “txarreatatik” errepresalien beldur dira... • Noizbait jokabide txarren bat ikusi al diozu, lehiaketan edo entrenamenduren batean? Esku hartu al duzu?	• Zantzu edo susmoren bat badago jakinarazi OAri edo <i>Zure Taldekoak Gara</i> zerbitzuari.
	Kirolari adingabeen artean	• Kirolaren bitartez gatazkak konpontzeari eta garapen positiboari buruzko prestakuntza.	• Antzeman al duzu adingaberen batek beste bat diskriminatu duela, edo errespetua galdu diola? • Nola ziurtatzen duzu adingabeek modu egokian tratatzen dutela elkar lehiaketetan, entrenamenduetan eta aldageletan?	• Larriak edo errepikakorrak ez badira, bitartekaritza lana egin jasotako prestakuntzaren arabera. • Kasu larri edo errepikakorrak gertatuz gero, jakinarazi OAri edo <i>Zure Taldekoak Gara</i> zerbitzuari.



Epaileekin

Epaileak ere pertsona erabakigarriak dira kirol lehiaketak modu egokian garatzen direla ziurtatzeko. Lehiaketak ez ezik, adingabeen ongizatea babestu eta haien interesak gainerako pertsonen interesen gainetik defendatu beharko dituzte.

Aintzat hartu behar da kasu askotan epaileak ere kirolari adingabeak direla. Horregatik, kirolariei buruzko atalean ezarritakoa aplikatuko da, eta kasu honetara egokituko da.



Indarkeria motak kirolean	Prebentzioa	Detekzio goiztiarra Galdera kritikoen zerrenda	Esku hartzea
Norberak eragindako indarkeria	Oinarrizko prestakuntza, adingabeen autozaintza sustatzeari eta adingabeen aurkako indarkeria motak modu goiztiarrean antzemateari buruzkoa.	- Kirolari adingabeek ondo pasatzen al dute epaile lanak egiten dituzun lehiaketetan? - Epaile adingabea bazara: Zure osasun mentala lantzen laguntzen al dizute? Ba al daukazu gerta daitezkeen indarkeria egoerak identifikatzeko tresnarik?	Zantzu edo susmoren bat badago jakinarazi OAri edo <i>Zure Taldekoak Gara</i> zerbitzuari.
Testuinguruko indarkeria (normatiboa-egiturazkoa)	- Kirolari eta botere sistemei buruzko prestakuntza. - Prestakuntza kirol testuinguru seguruetako material, instalazio eta testuinguruei dagokienez (kirol modalitatearen istripu tasa).	- Zuk epaile lanak egitean, kirol bereko beste batzuekin alderatuta diskriminatuta dauden kirolari adingabeak daudela uste duzu? - Araudia zuk arbitratzen dituzun haur eta nerabe kirolariei egokituta ez dagoela iruditzen al zaizu? - Zure ustez, lehiaketak antolatze moduak zuk arbitratzen dituzun haur eta nerabe kirolariak diskriminatzen ditu? - Lehiaketen edo partiden aurretik erabiliko den materiala eta instalazioak ikuskatzen al dituzu? ...	- Larriak edo errepikakorrek ez badira, bitartekaritza lana egin jasotako prestakuntzaren arabera. - Kasu larri edo errepikakorrek gertatuz gero, jakinarazi OAri edo <i>Zure Taldekoak Gara</i> zerbitzuari.

Pertsona arteko indarkeria	Epaileengandik kirolariengana	• Adingabearen ongizate eta tratatu onean zentratutako arbitraje estilo eta jokabide kodearen inguruko prestakuntza.	• Epaile lanak egin dituzunean adingaberen bat umiliatu al duzu, edo barregarri utzi? • Oihu egiten diezu adingabeei, edo estilo erasokorrarekin zuzentzen al zara haiengana (irainak, mehatxuak...)? • Adingabeen artean errespetuzko giro ona sustatzen duzula uste duzu (elkarri eraso ez egitea, baztertuta ez uztea...)? • Epaile gisa hartzen dituzun erabakien arrazoiak azaltzen al dituzu, ikasketaren parte gisa? Edo araudia aplikatzera mugatzen zara?	• Zantzu edo susmoren bat badago jakinarazi OAri edo Zure Taldekoak Gara zerbitzuari.
	Entrenatzaileengandik kirolariengana	• Adingabearen ongizate eta tratatu onean zentratutako arbitraje estilo eta jokabide kodearen inguruko prestakuntza.	• Entrenatzaileek gehiegi exijitzen dutela igartzen duzu? Entrenatzaileek berdin eta errespetuz tratatzen al dituzte entrenatzen dituzten kirolari guztiak? • Hala ez bada, zerbait egiten al duzu egoera horretan? • Adingaberen batek, lesionatuta egon arren, jokatzeko jarraitzea baimentzen duzu? • Lehiaketaren edo partidaren amaieran, ba al daukazu tresnarik adingabeen ongizateari kalte egiten dioten egoerak aktan jasotzeko? • Antzeman al duzu noizbait entrenatzaileek ez dietela kasu egin jokalarien eskaerei (nekea, larritasuna, ondoeza, presioa eta abar direla medio)? • Epaile adingabea bazara: Entrenatzaileen partetik tratatu egokia jasotzen al duzu? Liskar egiten dizute, edo iraindu egiten zaituzte?	• Zantzu edo susmoren bat badago jakinarazi OAri edo Zure Taldekoak Gara zerbitzuari.

Pertsona arteko indarkeria	Familia ingurua	• Adingabearen ongizate eta tratu onean zentratutako arbitraje estilo eta jokabide kodearen inguruko prestakuntza.	• Ikusle gisa dauden familien partetik tratu egokia jasotzen al duzu? • Baimentzen al duzu lehiaketetako ikusleek kirolari adingabeak iraintzea, edo haiei liskar egitea? • Ba al daukazu kasu horretan esku hartzeko tresnarik? • Nabaritzen al duzu familia inguruek kirolari adingabeei exijitu egiten dietela? • Epaile adingabea bazara: Familia inguruen eta ikusleen partetik tratu egokia jasotzen al duzu? Liskar egiten dizute, edo iraindu egiten zaituzte?	• Zantzu edo susmoren bat badago jakinarazi OAri edo <i>Zure Taldekoak Gara</i> zerbitzuari.
	Berdinen artean	• Kirolaren bitartez gatazkak konpontzeari eta garapen positiboari buruzko prestakuntza.	• Nola ziurtatzen duzu adingabeek modu egokian tratatzen dutela elkar lehiaketetan? • Elkar iraintzea onartzen duzu? Elkarri oihu egitea...? • Nabaritzen al duzu kirolari adingabeek elkarri gehiegi exijitzen edo aurpegiratzen diotela?	• Larriak edo errepikakorrak ez badira, bitartekaritza lana egin jasotako prestakuntzaren arabera. • Errespetu falta edo diskriminazio kasu larri edo errepikakorrak gertatuz gero, jakinarazi OAri edo <i>Zure Taldekoak Gara</i> zerbitzuari.



Osasun-laguntzako langileekin

Osasun-laguntzako langileak (medikua, fisioterapeuta, psikologoa...) ere erabakigarriak izango dira indarkeria egoerak antzeman eta prebenitzeko, gertutasunagatik eta adingabeekin izan dezaketen kontaktu fisikoagatik.

Langile horiek batez ere errendimendu altuko kirol entitateetan egingo dute lan, eta kode deontologiko propioa izango dute, adingabeen ongizatea bermatzeko aplikatuko dutena.

Indarkeria motak kirolean	Prebentzioa	Detekzio goiztiarra Galdera kritikoen zerrenda	Esku hartzea
Norberak eragindako indarkeria	• Indarkeria mota ugariren detekzio goiztiarra eta adingabeen autozaintza sustatzeko oinarritzko prestakuntza.	• Entrenatzen dituzun kirolariek ongi pasatzen dute? • Galdetu diezu? • Kirolari adingaberen batek gorputz lesio deigarriak dituela ikusi al duzu? • Kirolari adingaberen bat mentalki nekatuta dagoela ikusi al duzu? • Zure ustez, kirolari adingaberen bat bereziki triste dago, edo aldartea aldatu egin zaio? • Zer gertatzen zaion galdetu diozu? • Elikadura osasungarriari buruz hitz egiten duzue? Elikaduraren inguruan modu deigarrian hitz egiten du?	• Zantzu edo susmoren bat badago jakinarazi OAri edo Zure Taldekoak Gara zerbitzuari.
Testuinguruko indarkeria (normatiboa-egiturazkoa)	• Kirolari eta botere sistemei buruzko prestakuntza. • Kudeaketa gardena baliabideak banatzean.	• Zure ustez, tratatzen dituzun kirolari adingabeak diskriminatu egiten dituzte, klub edo federazio bereko beste batzuekin alderatuta? • Zure ustez, zure entitateak adingabeen interesak babesten ditu, entitatearen beste interes batzuen gainetik? Adibidez, lehiaketa lorpenak, lorpen ekonomikoak... • Profesional gisa plazaratzen dituzun gomendioak jarraitu egiten direla uste al duzu? Edo parte hartzea eta emaitza lehenesten dira, gomendioen gainetik? • Presionatuta sentitu al zara zure lanbidearen kode deontologikoa urratzeko?	• Zantzu edo susmoren bat badago jakinarazi OAri edo Zure Taldekoak Gara zerbitzuari.

Pertsona arteko indarkeria	Langileengandik kirolariengana	• Natura Sexualeko Deliturik gabeko Ziurtagiria. • Adingabearen ongizate eta tratatu onen zentratutako entrenamendu estilo eta indarkeriaren prebentzio eta jokabide profesionalaren kodearen inguruko prestakuntza.	• Lesioen edo osasun mentaleko arazoen eragin bereziki handia antzeman al duzu? • Entrenatzaileari edo Ongizatearen Arduradunari jakinarazi al diozu? • Kirolariaren osasuna bere kirol errendimenduaren gainetik jartzen al duzu?	• Zantzu edo susmoren bat badago jakinarazi OAri edo Zure Taldekoak Gara zerbitzuari.
---	---	---	--	---



Kirol entitateen zuzendaritzarekin

Kirol entitateen zuzendaritzek entitateetan adingabeak babesteko kultura sustatzea gidatzeko betebeharra daukate. Horrez gain, adingabeen ongizatea eta zaintza bermatuko duten araudi guztiak aplikatu behar dituzte.

Kirol entitateen zuzendaritzarekin

Indarkeria motak kirolean	Prebentzioa	Detekzio goiztiarra Galdera kritikoaren zerrenda	Esku hartzea
Norberak eragindako indarkeria	• Adingabeen autozaintzaz eta detekzio goiztiarraz sentsibilizatzea, entitatean adingabeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren arloan. • Baita babesaren kultura sortzeko dagokionez ere.	• Zure entitateko entrenatzaileek ba al dute adingabeen autozaintzari, detekzio goiztiarrari eta kirolean adingabeen aurkako indarkeria prebenitzeko buruzko prestakuntzarik?	• Eskatu aholkularitza <i>Zure Taldekoak Gara</i> zerbitzuan.
Pertsona arteko indarkeria	• Jokabide kodeaz sentsibilizatzea eta horren berri ematea, eta entitatean adingabeen ongizate eta tratu onen kultura sustatzea.	• Ba al dakizu zure entitateko kirolari adingabeek errespetuz hitz egiten ote duten taldeko edo klubeko kideei buruz? • Ba al dakizu zure entitateko kirolari adingabeek eta taldeko eta klubeko kideek errespetuz tratatzen ote duten elkar? Eta jolaskide eta lehiakide diren kirolari adingabeekin? • Ba al dakizu kirolari adingabeek sentitzen ote duten entrenatzaileak errespetuz tratatzen dituela? Iraindu egiten ditu? Gaizki sentiarazten ditu? • Ba al dakizu zure entitateko adingabeek sentitzen ote duten entitatea konfiantzazko espazioa dela, haien kezkak kontatu ahal izateko?	• Eskatu aholkularitza <i>Zure Taldekoak Gara</i> zerbitzuan.
Testuinguruko indarkeria (normatiboa-egiturazkoa)	• Arriskuak aztertzea eta prebentzio eta jarduketara plan bat egitea, desagerrarazteko eta mugatzeko (istripuak jardunean, kalitatezko azpiegiturak...). • Adingabeek elkartearen erabakietan parte hartzea sustatzea. • Bidezko tratua sustatzea.	• Kirolari adingabeek hartzen al dute parte taldearen, klubaren edo federazioaren erabakiak hartzean? • Zure talde, klub edo federazioko kirolari adingabe guztiek tratua jasotzen al dute? Adibidez, berdintasunetik gabeko tratua, aurrekontu desberdina, instalazioetara sarbide desberdina...	• Eskatu laguntza <i>Zure Taldekoak Garaz</i> zerbitzuan adingabeen ongizatea sustatzeko politikak egiteko.



INFORMAZIO ETA BALIABIDE GEHIAGO

1. Zure taldekoak gara zerbitzua:

Eusko Jaurlaritzaren laguntza zerbitzu bat da, indarkeria kasuak salatzeke edo jakinarazteko. Horrez gain, ongizate kultura sustatzen jarraitu nahi duten entitateei aholkularitza eta akonpainamendua ere eskaintzen die.

<https://www.euskadi.eus/web01-a1berkir/es/>

2. Kirolaren Euskal Eskola:

Babesari buruzko prestakuntzan erreferentziazko Eusko Jaurlaritzako zerbitzua da, Ongizatearen arduradunentzat eta adingabeekin lan egiten duten entrenatzaileentzat.

<https://www.euskadi.eus/zer-da-kirol-euskal-eskola/web01-a2kiesko/es/>

3. Athletic Cluben Aterpe programa:

<https://athleticclubfundazioa.eus/proyectos-deportivos/aterpe/>